

**ZENBAT BURU**

Idoia Arozena

**ERREPORTAJEA**

Emakumea lan munduan aurrera

**GEHIGARRIA**

Kale zuloatik baserrira

**KIROLA**

Pneumax Elgoibar eskubaloi taldea Gipuzkoako txapeldun


# BARRREN

2000ko martxoaren 3a  
VIII. urtea - 311. zkia

ELGOIBARKO ASTEKAR A

Mchook 8, Emckumaien czioarteko Egunc

## Emakumeak Igigñitikoentzako lanortil







# CAMBRIDGE

EXAMINATIONS, CERTIFICATES & DIPLOMAS  
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE

University of Cambridge  
Local Examinations Syndicate  
International Examinations

## MATRIKULAK: Martxoaren letik 9ra arte

AZTERKETAK ETA DATAK:		INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:		
<i>Young Learners (Starters, Movers, Flyers)</i>	Ekainak 3	ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36
<i>K.E.T. (Key English Test)</i>	Ekainak 10		Key Academia de Ingtes	943 74 30 44
<i>P.E.T. (Preliminary English Test)</i>	Ekainak 10	ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83
<i>F.C.E. (First Certificate English)</i>	Ekainak 17	BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53
<i>C.A.E. (Cambridge Advanced English)</i>	Ekainak 14	DURANGO:	Compubit English Institute	94 620 20 20
<i>C.P.E. (Cambridge Proficiency English)</i>	Ekainak 15	EIBAR:	Anglo-American	943 20 64 57
<i>B.E.C. 1 (Business English Certificate 1)</i>	Ekainak 7		Link Idiomas	943 20 39 59
<i>B.E.C. 2 (Business English Certificate 2)</i>	Ekainak 8		Ukitze	943 70 25 59
<i>B.E.C. 3 (Business English Certificate 3)</i>	Ekainak 6	LEKEITIO:	Anglo American - Link Idiomas	94 684 14 15
		ONDARROA:	Howdy Academy	94 613 43 26
		OÑATE:	A & M School of English	943 71 61 37
CAMBRIDGE EXAMINATIONS CENTRE EIBAR ES-438				

**iiii(l;;,|C',)C>jMQ.fr: 00fM0917UZJOQ0**

ARGAZKIAK **45**

ORDUBETEAN

ERREBELATUTA.

TAMAINA GUZTIAK

7x9tik

20x30era.

● **ESTUDIOKO ARGAZKIAK PREZIO BEREZIAN**

Santa Ana, 5  
20870 Elgoibar  
Tel. 943 740 646



IDOIA AROZENA

## Hogeitamapikoak jota

**A**gian, ostarerik gabeko eguna suertatu delako eta euri-jasak atertzeke itxuraz ez duelako, edota berez, egunak, txarra ala ona iratzarri, honelako behar zuelako izan, baina udaberri gosez somatzen dut neure burua. San Jose loreen horiak dagoeneko zipristindu ditu belardiak, sasoi berrien iragarle. Eta ni neu ere aro berritzaile horren irrikitan nago, soinetik jantzien zama eta iluna kendu eta argitasunari atea ireki nahian.

Badakit dena den, udaberriak berak baka-ffik ez dakarrela aseko nauenik. Argiak llunari hanuko dio aurre, egunak luzatuko dira eta azala, poliki-poliki, belztuz joango da, baina barruko nahigabea ez da honégatik desagertuko. Arima arintzeko beste zerbait behar dut, nik neuk ere ez dakidan arren zer den "beste zerbait" hori. "Hogeitamapikoak" jota

gaudela esaten du lagun batek. Honetan ere emakumeok azkarragoak omen gara eta, giza-semeei berrogei inguruan somatzen zaien krisia, gutako askori lehenago gertatzen ei zaigu. Gaztetasunaren eta ustezko etorkizunaren ametsetan urterik zoroenak emanda, hogeita hamar urteen muga honezkero atzean utzi eta ordulari biologikoaren itzalpean, heldutasunaren bidea unatzen hasiak garela somatzen dugu. Orduan izaten dira komeriak, badirudielako har daitekeen norabidea bakarra dela. Lan egin, haurrak izan -behin ugalketan hasita pare bada, hobe, eta zorte piska batekin, parejatxoa. A ze polita! -eta zorretan Ieporaino sartu, ahalik eta gauza gehiago eta hobeak eskuratzeko: etxe on bat,

kotxe egoki eta ponpoxoa eta urtean behin, opor santuak. Hori guztia lortzen duenak, bizitza honekin kunplitu duela esan dezake. Amen.

Zorionekoa, bada, horrekin guztiarekin pozik eta gustura bizi dena edo sikiera, konformatzen dena, ez baitu ez burukominik, ez bihotzeko lanitasunik somatuko. Denbora burua berotzen afferrik galdu beharrean, bere hazienda hobetzen inbertituko du.

Zoritarrekoalc aldiz, ni bezalako petralak. Ingurura begiratu eta, printzipioz, kexatzeko gehiegizko motiborik izan ez arren, daukagunarekin asetzen ez garenok. Beti zerbait gehiago nahi: aisialdirako aukera zabalagoak, lan aukera ezberdin eta kreatiboagoak, eguneroko apatiatik aterako gaituen emozio edo abenturaren bat, lagun zirrargarriak, sentimenduei eta umoreari pul-tsoa hartu eta horren arabera jokatzeko jakingo duen biko-


tea, agian haur bat edo agian ez...

Ez dut uste aurreko belaunaldiek horrelako "pelikularik" montatuko zutenik. Nahikoa lan izaten zuten, egunerokoa salbatu, seme-alaba talde galanta aurrera atera eta bizitnodu ahalik eta duinena eskuratzeko. Eguna lanean gogor eman ondoren, ez zuten honelakoetan pentsatzeko astirik. Edo gogorik. Edo kemenik. "Hogeitamapikoak jota" gaudela esaten duen lagunak ondo ezagutzen ditu gaitzaren sintomak, zailagoa zaio ordea, minari sendagaia bilatzea. Kiisiak jota gauden gehienok denboraren esku uzten dugun konponbidea; iluntasunik gabeko argitasunik ez da eta udaberriari ongietorria emateko negua zer den jakin behar da.

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta Nandan-tnandan idazten dute. Koiaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile hakoitzak nahi duena aukeratzen du.

**"Arima arintzeko beste zerbait behar dut, nik neuk ere ez dakidan arren zer den 'beste zerbait' hori"**

## Barrak, Birrak eta Barreak



OKOE 2000,92





Nafarroa enparantza. 2  
20870 ELGOIBAR  
"z" 943 74 41 12  
Publizitatea:  
943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

[www.ihardun.com/barren](http://www.ihardun.com/barren)

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Iraii Agirreazaldegia, Jon Eugi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, ton Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
EUSKARA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlearitzako Kultura  
Sailak eta Faru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



*gizarre-okinrza  
obra social*

**44 DANOBAT**

GRUPO DANOBAT

## Antena dela eta ez dela

**N**ik ez dakit zenbat elgoibartarrek jakingo duten gai honen berri (inork gutxi ziurrenik), baina kontua da telekomunikazio enpresa batek, *Euskaltelek* kasu honetan, telefono mugikorren kobertura sarea handitzeko bere antena propioa jartzeko asmoa duela Elgoibarren. Antena hau jartzeko Urasandiko etxebizitza bloke baten teilatua aukeratu du, ez dakigu zein irizpiderekin. Baimen honen truke urtero errenta bat ordainduko lieke enpresak auzokide hauei. Jakina da telefono mugikorren inguruan errezelo txarrak sortu direla azken urteotan, ikerketa batzuen emaitzek frogatu dute kausa honen eraginak hasi direla pairatzen zenbait herrialdetan. (Alemanian adibidez, auzokide batzuen gan burukomina, estresa, nekea, lorik egin ezina etab. sorrarazi ei ditu asuntu honek). Garbi dago pertsona denonengan ez duela eragin berbera eta gaia nahiko berria denez, luzera ekarri ditzakeen ondorioak ez dira errazak antzematzen.

Ez dakigu antena hau jarri aurretik ikerketarik egin duten edo egingo duten, eta egiten badute fidatzerik ba ote dagoen (ikerketa nork egiten duen alde handia dago), ez eta udalak zein araudi betearazten dien horrelako enpresei antenak jartzeko orduan. Baina azkenean antena hori jartzea onartzen badute, bai Udalak bai auzokide horiek, eta eragin tamalgarririk balu urte batzutura, baiezkoa eman dutenek ez al lukete erantzukizun handi xama-

rra edukiko? Gai hau herritar denon onurarako edo kalterako izanda, ez al litzaioke duen garrantzia eman behar?

Antena bat edo beste herrian edukitzeak badirudi ez duela arriskurik izango gudan, gero eta enpresa gehiagotako konpetentzia handiagoa dagoenez, gero eta antena gehiago jarri nahiko dituzte herrian eta beldur gara arriskutsuegia ez ote den izango. Lehendik ere badugu telefono mugikorraren beste antena bat Urtian, San Migelera bidean (baliteke besteren bat ere egotea guk jakin ez arren), Udalak baimen hau eman aurretik gauzak zehaztu balitu, ez litzateke beste antenarik beharko herrian, gauza hauek zenbat eta urrutiago egon jendea bizi den lekutik askoz hobeto baita.

Gaszte Asanblada

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatula egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-ablzenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.



## KEXAI

• Herritar batek honako kexa hau argitaratzeko eskatu digu: "Santa Klarako etxe berrien "Jausoroko etxeak" atzean, aparkaleku txiki bat dago bidearen alde batean. Beste aldean, berriz, debekatuta dago aparkatzea, nahiz eta gidari askok marra horia ez duten errespetatzen.



Etxeak berriak zirenean udaltzainek jartzen zizuten isunak, baina egun, aldiz, ez. Noizean behin harantz joaten garenek badakigu zer den handik li beharra: alboko autoak ez jotzeko alde guztietara begiratzea, aparkatzeko gutxienez sei maniobra egin beharra aurreko autoa ez jotzeko. Arazo honi irtenbidea eman behar zaio. Kotxeak bertan uztea debekatua badago, guztiok errespetatu behar ditugu arauak. Badakit guztioi gustatzen zaigula kotxeak etxe parean uztea, baina debekatua baldin badago, zergatik egiten duzue? AIA udaltzainek en'otondan gelditzeko agintzen dizuenean ere, gaineratik pasatzen al dituzue?



## TXALOAK

• San Pedro auzoko bizilagun batek **Nerea Loiola, Ainhoa Ansola, Agurtzane Ansola eta Amaia Gabilondo txalotu nahi ditu.** "4 emakume hauek San Pedro auzoaren alde azken lau urteotan egin duten lana txalogarria izan da. San Pedro auzoko bizimodua hobetzeko jan'i duten ilusioak eta gogoak gainontzeko auzotar guztion esker ona merezi du.

# BAI, ESAN?



## Conchi Cid

Haizea Emakume Taidekoa

Martxoaren 8a, datorren asteazkena, Emakumearen Nazioarteko Eguna da. Batzuek ospakizunetarako eta beste batzuek aldarrikapenerako erabili ohi dute egun hau. Elgoibarren bada emakumeen elkarte bat, *Haizea E.T.* eta gu bertako *Conchi* Cidekin izan gara egun horri eta emakumearen egorari buruz hizketan.

- **Modu berezian ospatuko al duzue martxoak 8a?** - Bai, egunean bertan ekitaldi konkreturik egin ez arren, data horren inguruan hainbat ekintza antolatutugu. Gaur, martxoaren 3an, hasi eta hilaren 17ra arte "Emakumeak han eta hemen mundu berri bat erditzen" erakusketa jani dugu ikusgai Kultur Etxean. Martxoaren 10ean emakumezkoek interpretatutako antzerkia izango da, eta hukatzeko, igandean, tuarxoaren 12an, Donostiara txangoa egingo dugu emakumeok.

- **Hitzaldiak ere antolatu dituzue, ezta?** - Bai, elikadurari bur'urko hitzaldiak izan dira. Egungo egoera ikusita, gai interesgarria iruditu zaigu eta hitzaldi hauen bidez elikadura arazoei huruzko gauza asko ikasi ditugu. Gainera, airakasta nahiko handia izan dute hitzaldiok.

- **Nolako harrera dauka taldeak herrian?** - Ona. Taldeak jendearen bultzadarengatik jamitzen du aurrera. Antolatutako ekintzetara emakumeak etortzen dira eta taldearekiko interesa azaldu ostean, bertan sartzea erabakitzen dute.


- **Zein izan dira taldeak azken urteotan egin dituen lorpenak?** - Antolatutako ekintzak direla-eta, emakumeek etxetik ateratzeko aitzakia on bat izan dute. Senarrik gabe, emakume talde batekin, munda zabaltzeko modu egokia aurkitu dutela konturatu dira asko. Orokorrean, emakumeak beldurra galtzen ari gara eta pertsona gisa gure burua osatzeko etxeko lanak eta familia baino zerbait gehiago behar dugula ikusi dugu.

- **Ospakizunetarako ezezik, aldarrikapenerako ere erabiliko duzue martxoak 8a.** - Egun honetan emakumeengan eragina duten arazoak azaleratuko ditugu. Lan arloan esaterako, emakumeen kopurua gizezkoena baino txikiagoa da, soldatarik gabeko emakumeen arazoa, tratatu txarrak... problema horien aurka eta gure independentziaren alde borrokatu behar dugu emakumeok. Horretarako, gainontzeko jendeak dituen eskubide berak dauzkagula adierazi nahi dugu.

## ESKERTZA

2000ko otsailaren 20an, 70 urte zituela *zen*

*JIANA LIZARRALDE TXURRLIK*aren sendiak, bihotzez  
**ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola *Cabeilm de la Salen* eta *Elgoibarren* izanclako hileta elizkizunetara agertu izana.





XX. gizaldiaren basieran emakunzeak garbitzaileak, jostunak, neskameak etab. izan zitezkeen, baina ez zeukaten prestigio gehiagoko lanetan aritzeko aukerarik. Garai hartan nagusi zen pentsamoldearen arabera, telegrafista, telefonista, neskatxen irakasle eta erregina bakarrik izan zitekeen emakumea. Mende oso bat beranduago emakumearen egoerak hobekuntza nabarmena izan du, ez bakarrik lan profesionalari dagokionez, bizitzako alor guztietan baizik, lan munduko sektore ia guztietan baitaude emakumeak gaur egun. Hala ere, langabezia kezkarik nagusia den egunotan, emakumeen artean dago langabetu kopuru altuena, batez ere emakume gazteen artean. Esan ditugunak hitzak bakarrik ez direla baieztatzeko, tradizioz gizonak aritu diren lanbideetan lanean diharduten 3 emakumerekin berba egin dugu. Almudena Islak galdaragintzan egiten du lan, Alicia Dominguezek gasolindegian batean eta Mari Jesus Rey-k autobusak gidatzen ditu.

# El ku mcd "



Almudena Islak  
kaldar tzan egiten du  
lan la bost urtetik.  
; Lan, etan emakume  
bat a ez da ohikoa

## Almudena Isla

27 urteko elgoibartar honek 5 urte daramatza "Caldererías Isla" galdaraginriza lantegian. Unibertsitate ikasketak ditu, graduatu soziala ikasketak, hain zuzen, baina lantegiko lana ikasi behar izan zuen, Erraminta Makina alorreko makinentzako babesak egiten ditu Almudena Islak. "Galdaragintzan altzairuzko xaflekin lan egiten dugu. Planoetan oinarrituz, makinaren kanpoko aldeari itxura ematen diogu". Almudena aipatu digunez, oso emakume gutxi daude lanbide honetan, "nire ahizpa Miriam eta nitaz gain, galdaragintzan aritzen diren oso emakuntze gutxi ezagutzen ditut, eskolarik ere apenas baitago inguruotan. Orain arte gizonen sektorea izan da hau, baina politiki-poliki lan merkatua ari da atea zabaltzen emakumeontzat ere".

Emakume izateagatik inoiz ez dela diskriminaturik sentitu aipatu digu Almudena, "5 langile gaude lantegian eta guztiok elkar ezagutzen dugunez, ni hemen ikustea ez da artaroa inorentzat. Hala ere, batzutan gure bezeroak harritu egiten dira piezen planoak emakumeek egin dituztela jakitean. Jendeak non lan egiten dudana galdetzen didanean ere, harritu egiten dira. Behin edo

behin esan didate hau gizonen sektoreko lana dela. Zer baitetan lan egin beharra dagoela erantzuten diec nik, ordea. Gainera, emakumeok galdaragintzarako ezaugarri bereziak ditugula uste dut, piezak ondo bukana egon behar dira, eta itxura ona eduki behar baitute, hau da, leuntasunez egindako lana izan behar da".

Dena dela, Almudena iritzi ezin da orokorrean hitz egin, "ezin da gizonak edo

emakumeak hobeak direnik esan. Pertsonak inbiduo moduan harri behar dira eta bakoitzak erakutsitako gaitasunaren arabera aintzat hartu. Generoak ez du zerikusirik norberaren gaitasunarekin, norberaren ahalginak eta esfortzuak dute garrantzia". Lan profesionalaren munduan emakumea orain-

"Emakumeok gure burua diskriminatzen dugu batzuetan, asko ez baitaude prest buzoa jantzi eta eskuak zikintzeko". ALMUDENA ISLA

di k diskriminatua dagoela esan digu, baina errua ez dela gizonen munduak bakarrik, "emakume askok gure burua diskriminatzen dugu. Emakume asko ez dago prest buzoa jantzi eta eskuak zikintzeko". Azkenik, berdintasuna beharrezkoa dela esan digu, baina ez derrigortuta, "derrigortzea ez zait ondo iruditzen, bai ordea, aukera berdintasuna eskaintzea eta hori momentuz ez da guztiz betetzen".

## Alicia Dominguez

26 urteko elgoibartar honek ia 5 urte daramatza gasolindegian lanean. Lehenengo Itziariko gasolindegian batean, eta duela pare bat urte ingurutik Zumarraga eta Beasain arteko autobidean dagoen gasolindegian. Crasolindegian lan egiteko aukera sortu zitzaionean, aprobeitatu beharreko aukera izan zitekeela iruditu zirzaion eta gaur egun oso gustura dago, "jende askok lan-



# 7011CC Vale1ral



*Alicia Dominguezek Zumarraga eta Beasain wit ko autobidean dagoen gasolindegian egiten*

**"Lan baterako norbait aukeratzeko, bakoitzaren gaitasunari begiratu behar zaio eta ez sexuari".**

ALICIA DOMINGUEZ

postu arriskutsua izan daitekela dio, batez ere emakumeek. Gauean bakarrik egon beharra era lapurretak etortzen zaizkio jende-ari burura, baina ez da horrenbesterako". Aliciak esan digunez, jendea gero era ohituagoa dago emakumeak edozein lanetan ikustera, baita gasolindegietan ere, baina harritzen diren banaka barzuk ere badaude oraindik. "Orokorrean, emakumeak izanagatik berdin tratatzen gairuzte, baina batzuetan, lan konpretuak egiren ditugunean, batez ere, harritu egiten dira zenbait gizonetzko, Esaterako, norbaitek okerreko gasolina bota ondoren, depositotik atera eta arazoa konpontzeko gai garelako ikustean gizonetzko asko harritu egiten dira. Besre askok, ezer egiten hasi aurretik mekaniko ba-

tek egiteko lana dela esaten digute".

Aliciaren iritiz, lan profesional-ean gizonetzkoek erraztasun gehiago dituzte oraindik, "lan berdina egiteagatik gutxiago kobratzen duten emakumeak daude oraindik". Hala ere, diskriminazio positiboa deitutakoarekin ez dagoela ados azaldu digu, "emakume eta gizonetzkoen berdintasunaren alde nago, baina ez dut uste bidezkoa denik berdintasun hori lege bidez ezartzea edo derrigortzea. Lan baterako norbait aukeratzekoan bakoitzaren gaitasunari begiratu behar zaio era ez emakumea edo gizona den. Nirea adibidez, ez da gizonetzako edo emakumeentzako lana, lanbide bat baizik. Bestalde, emakumeok erxeko lanez gain kanpoan lan egiteko erxeko lanak erdibanatzea ezinbestekoa da. Nire kasuan zorionez ez daukat kexatzeko arrazoirik".

## Maria Jesus Rey

Maria Jesus Rey 17 urterekin hasi zen garraiolaritza lanean. Hasieran bulegoko lanak bakarrik egiten zituen, baina piskanaka autobusak gidatzen hasi zen. Gaur egun, "Basko Rent" enpresan bi lanak tartekatzen ditu; batetik admimistrari lanak egiten ditu bulegoan, bestetik, langileak lantegietara era haurrak eskolara eramaten ditu autobusean, "asko atsegin dut gidatzea, eta autobusean denbora gehiago egitea gustatuko litzaidake".

Azken aldian gero eta gehiago diren arren, gizonekin konparatuz autobusak eta kamioiak gidatzen dituzten emakume gutxi daudela esan digu. "Lehen autobusak eta kamioiak gidatzea zailagoa zen. In-

**"Gero eta emakume gidari gehiago dagoen arren, `ernakumea izan behar' eta antzerakoak entzuten ditugu oraindik".**

MARIA JESUS REY

dar fisiko handia behar zen, lagundutako direkzioa, freno elektronikoak era antzerako erraztasunik ez baitzegoen. Orain aldiz, ez da ezaugarri fisiko berezirik behar, karneta ateratzeko nahikoa da.

Emakumea eta autobus gidaria izateagatik auto eskolan bakarrik sentitu zela diskriminatuta esan digu, "gizonetzko inguratuta egotea ohikoa da era gehienek karnem ateratzeko arazo gehiago izango ditugula pentsatzen dute, mekanikari buruz ikasi behar diren nozioak direla-eta Oraindik gehiago xunditzen dira, ordea, emakume batek azterketa gainditzea lortzen badu eta betaiek ez".

Gizonen arrear nahiko topiko zabaldua da emakumeak bolante aurrean arriskutsuak direla. Maria Luisak horrelakoak hasieran bakarrik sufritu zituela aipatu digu, "karneta atera berritan, gizonetzkoak ate ondora irretzen ziren autobusa garajetik ateratzeko gai izango ote nintzen ikustera, baina jadanik ohiru dira ni bolante aurrean ikustera. Tamalez oraindik entzun behar izaten ditugu 'emakumea izan behar' era antzerakoak".



*Maria Jesus Reyk bizi osaa daraina garraioladizari latuta—Buiegaaulanean ibili... durla urte gutxi barzuk hasi zen... autobusak gidatzen.*



# Iertaz ez zinateke sekula mozorrotuko?



**JUNKAL THURRUKA**

36 urte, irakaslea

Ez jataz karnabalak gustatzen, orduan gauza askotaz ez nintzake sekula disfrazauko. Baina maskara itsusi hoietako bat ez nuke inoiz jantziko.



**IÑAKI MAIORA**

31 urte, elektrikista

Azken bi edo hiru urtietan ez naiz disfrazau, baina bes-tela edozertaz mozorrotuko nintzake. Urtian behin danez, berdin jata zer jantzi.



**LEIRE GONZALEZ**

17 urte, ikaslea

Neskamez ez nintzateke jantziko eta gustuko disfraz bat aukeratzekotan, sorginarena hartuko nuke. Nonnalean mozonak etxean prestatzen ditut edo koadrilakoei eskatu.



**JOSE MERINO**

19 urte, ikaslea

Goardia zibilez. Gustatzen ez jatazen pertsonaje batzuek, ez nuke euren inungo antzik eukitzerik nahi. Pailazuana, berriz, gustuko dakat.



**MICHEL SANTOS**

20 urte, torneroa

Pelukak eta maskarak dituzten mozorroak ez nituzke aukeratu. Tabernetan ibiltzeko gauza erosoak jantzea hobe da, ongi pasatzea da kontua.



**INMA ROORIGUEZ**

29 urte, erizaina

Edozein mozorro jantziko nuke, uste dut. posible diren disfraz guztiak probatu ditudala. Gainera, nik josten ditut etxeko guztien jantziak gehienetan.

**Cordon, Vilarchao, c.b.**

**C•EICORAZIC)A**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA,

San Roke , 7 behe. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

**EH MITINA**

MAHAI NAZIONALEKO KIDE BATEK1N

Larunbatean, Plaza Handian, eguerdiko 13:00etan

**ia stentzic)**

**Peque choll**

*alf~ireka10.pauZOIr*

"AURREZTU EZAZU BERRI-BERRI dagoena EROSITA!"

Jantziak (0-16 urte) • Haurrentzako den dena • Haurdunaldirako jantziak Mozorroak Jostailuak • Oihalak • Liburuak - Kaseteak • Bideoak Dekorazio osagarriak

**Interesatuko zaizu!!**

Ez bota...Ez gorde...Ez oparitu...

**ALDU!!**



# iSPIILL fir[T 1[ BEGIRA



Sarasketa

ITZIAR SARASKETA ortopediako

- Pauso handiak banan-banan ala asko bizkor-bizkor?
- Poliki ibiitzia nahixao dot.
- Zer da zuretzat 'kailo' bat bezain mingarria?
- Gizurrak.
- Inoiz zapaldua sentitu al zara? - Bai, noizbait bai.
- Sekula jantziko ez zenukeen oinetakoa?
- Takoidunak eta puntadunak ez zaizkit gustatzen.
- Erosotasuna ala elegantzia? Komodidadia.
- Gehien sufritzen duen behatza?
- Txikixak eta haundixak. Baina zapata txikixak erabilitxu behatz danek sufritzen dabe.
- Ortozik ibiltzea gustuko al duzu? - Ez, beti oinetakuekin ibiltzen naiz.
- Noren oinetara makurtuko zinateke?
- Hona etortzen dian guztieri zapatak jazteko, euren oinetara makurtu bihar izaten dot.
- Inori eman al diozu muxurik oinetan? - Bai, umieri.
- Zeren alde egingo zenuke ibilaldi bat? - Bakearen alde.
- Noiz sentitu izan zara etxeko zapatilekin bezain eroso?
- Beti, nik erabiltzen ditxuten zapatak kornoduak dia-eta.
- Zer zapalduko zenuke desagertarazi arte?
- Pistolak destwertaraziko nitxuzke mundu honetatik.
- Inor bidali al duzu ostikada batez zure dendatik?
- Gogua euki izan dot, baina oin arte ez dot inor bialdu.
- Nora joango zinateke bota magikoak jantzita?
- Hondartza daukan lekuren batera.
- Takoia ala plataforma? - Ez bata eta ez bestea.
- Oin txikiak ala handiak dira politagoak? Bai txikixetan eta bai haundixetan politxak eta zatarrak daude.
- Nori egingo zenizkioke plantila berezi batzuk?
- Joseba Etxeberria futbolistari.

Tat tu zenid zertua

LORELEI

KONTZERTUA

Martxoaren 10ean

gaueko

22:30ean

IRATXO  
ROCK-KAFAA

ERKI

r0%

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

943 20 35 15  
ABERIAK 943 20 31 25  
Bista Eder, 11 (sotanoa)  
o 20600 EIBAR

## Mozorro lehlaketa eta musika izango dira ihauterietan

1 0.000 eta 30.000 pezeta arteko sariak emango dituzte disfrazik originalenentzat

**B**ihar, larunbata, martxoak 4, hasiko dira Ihauteriak. Beste herri batzutan egun gehiago hartzen dituzte herritarrek mozorro jaiak murgiltzeko, baina Elgoibarren larunbata eta asteartea izango dira disfrazatzeko egunak. Ihauteri jaiak direlata, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Udalak eta herriko hainbat elkarte. Bihar, larunbatean, arratsaldeko 17:00etan Elgoibarko Izarrako `Atxutxiamaiak Begirale Taldea'k antolatuta, Atxutxikarakea eta mozorroren desfilea izango dira Foruen Plazan. Arratsaldeko 19:00etan, berriz, kalejira izango da Mauxitxa txarangarekin. Gauerako ere hainbat ekitaldi daude antolatuta. `Joselu Anaiak' taldearen eta Mauxitxa txarangaren emanaldien ostean, Gurutze Gorriko Astialdi Taldeak antolatutako Mozorro Lehiaketa izango da Plazan. Antolatzaileek izena



sariak

### TALDEKA:

1. Saria: 30.000 pta.
2. Saria: 20.000 pta.
3. Saria: 15.000 pta

### BANAKA:

1. Saria: 20.000 pta
2. Saria: 15.000 pta.

### KOREOGRAFIA ONENA:

1. Saria: 10.000 pta.

emateko epea egun bereko 23:00etatik 23:45era izango dela esan digute. Banatuko diren sariak gainera, ez dira nolana hikoak.

### Asteartea, ihauteri eguna

Asteartean, martxoaren 7an, herriko haurrak bakoitzak bere mozorroa soinean duela Plazan elkartuko dira 16:30ean eta guztiek Azkona taldearen ikuskizunarekin ondo pasatzeko parada izango dute. Arratsaldeko 18:00etan suzko zezena izango da eta ondoren, Mauxitxa txarangarekin dantzatan ibiliko dira herriko kaleetan umeak.

Baina gaztetxoek ez ezik herriko edadetuek ere ihauterietan ondo pasatzeko gai direla erakutsiko dute. Zaharren Biltokian dantzaldia izango da `Gelaxo' orkestarekin eta bertan mozorrorik politenak jantzita dituzten bi lagunel sari bana emango zaie.

## • Santa Eskearen 75. urteurreneko bideoa salgai

Santa Eskeko "Etxegina" taldeak 75. urteurreneko bideoa salgai dagoela aditzera eman nahi du. Bideoa eskuratu nahi duenak, `Azku' argazki dendan izango du 1.500 pta. ren truke. Aurten, irabaziak eta gastuak kontuan hartuta 91.000 pta. eskuratu dituzte eta "Caritas"i ernan diote dirua. Taldekoek aukera hau aprobetxatu nahi dute 75. urteurrenean parte hartu dutenei eskerrak emateko. Bestalde, Elgoibarko enpresei eta herritarrei jakinarazi nahi diete dirulaguntzak eman nahi badituzte herriko hainbat banketxetan kontu korronteak zabalik daudela.

## 25 gereziando landatu zituzten Entxetan zapatuan Zuhaitz Egunean

Zuhaitzak zaintzeko argibideak eman zizkieten brigadako langileek gaztetxo

**J**oan den larunbatean, Jotsailaren 26an, Zuhaitz Eguna zela-eta 25 gereziando landatu zituzten Mintxetako futbol zelaiaren atzeko aldean. Elgoibarko ikastetxeetako hainbat ikasle gazte izan ziren bertan eta gehienek aurreko urteetako Zuhaitz Egunean ere landatu izan dute zuhaitzen bat. Eguraldia lagun izan zuten gaztetxoek eta aurrez prestatutako zuloetan kimualc sartu ostean lurrez estali zituzten. Ondoren, enborrean beraien izenarekin txarteltxo bana jarri zuten zuhaitzak nork landatu dituen jakiteko. Landareak Diputazioa-



Enborretan txartel bana zintzilikatu zuten gaztetxoek, zuhaitza nork landatu duen jakiteko.


ren Arizmendi landaretegitik ekarri zituzten. Gereziandoak izan arren, hauek ez dute fruitarik emango, bai ordea loreak. Zuhaitzak landatu zituzten haurrei hauek zaindu ahal izateko argibideak ere eman zizkieten brigadako langileek. Hala nola, adarretatik ez zintzilikatzeko, enborrari azalik ez kentzeko eta ostikadarik ez jotzeko eta errespetatzeko esan zieten. Izan ere, zuhaitzek bizitza dute eta bizitza ematen dute, eta gaizki zainduz gero hil egiten dira.





## Plaza Merkatu alboko kontenedoreak lekuz aldatu dituzte

Zakarrak Plaza Merkatu aldameneko kontenedoreetan botatzeko ohitura duten herritarrei zera jakinarazi nahi zaie: Hemendik aurrera, zakar poltsak Mankomunitateak BARRENen aldamenean daukan lokaleko kontenedoreetan hota hehar direla. Beraz, papera botatzeko kontenedore urdinaren alboan, lurrean utzi beharrean, piska bat aurrerago laga itzazue. Bestela, usaina kanpora zabaltzen da eta ez da batere txukuna geratzen inguruak.




## Markesina bat jarriko dute Altzolako tren geltokian

Eusko Tren'ek autobus geltokietan egon ohi diren markesinen antzeko bat jarriko du Altzolako tren geltokian. Honela, Altzolan tren hartzen duten bidaiariek edo bertan jaisten direnek hotzetik eta euritik babesteko modu aproposa izango dute hemendik aurrera. Udalak tren geltokia eta inguruak berritzeko asmoa duenez, mtukesina hau lehengo eraikuntza zaharraen ordezkoko egokia izango dela uste dute Eusko Tren'eko arduradunek. Altzolako tren geltokiak zeresan asko eman du azkenaldian. Batetik, trenaren ordutegiak zirela-eta auzokoek egin zuten protestarengatik; bestetik, berriz, geltokiko beffikuntzak direla medio. Markesina jaclanik jarri dute eta orain inguruak berritzea besterik ez da falta.

## Martmaren letik aurrera beharrezkoa da autoan hiruki homologatuak eramatea

Uztailaren 27an jarri zen indarrean ibilgailua bidean ezin mugituta edo karga lurrean dagoela adierazteko neurri buruzko legea. Trafiko zuzendaritzak hirukiak erosteko agindua eman zuen eta martxoaren letik aurrera nahitaezkoa da hiruki homologatuta autoan eramatea. Hirukiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: Enepidea



norabide bakarrek bada, hiruki bakarrek nahikoa da; norabide bikoitza badu, ordea, triangelu bana jarri beharko da autoaren aurrean eta atzean. Gainera, gutxienez 100 metrora ikusteko moduan ipiniko da. Hirukiak 45 eta 55 zentimetro bitartekoak izango dira, katadioptriko gorria eduki behar dute, barruan fluoreszente gorria eta baita homologazio marka ere. Zuzendaritzako iturrien arabera, hirukirik gabe harrapatuz gero, 15.000 pezetako multak jarriko dituzte. Beraz, auto gidariak kontuz ibili beharko dira eta onena hirukiak lehenbailehen erostea izango dute.

## • 1953ko kintoen bazkaria

Aurreko urteetan bezalaxe, aurten ere 53ko kintoek urteroko bilera egingo dute martxoaren 25ean. Eguerdiko 12:30ean Madalako elizan lagunen oroimenez meza egingo dute. Ondoren, 14:30ean Kinto bazkaria izango da Biar-Dana elkartearen. Bazkarira joan nahi duenak martxoaren 19a baino lehen eman beharko du izena Kastrillejo tabako-dendan, Gorostiza ileapaindegian edo Rolma-Izpe lantegian.

## • Udaleko Euskara Zerbitzurako lan-poltsa betetzeko izen-ematea zabalik dago

Euskara zerbitzuan egon daitezken ordezkapen beharrei aurre egiteko lan poltsa egitea erabaki du Udalak. Baldintzak honakoak dira: EGA edo titulu baliokidea edukitzea eta Soziologian edo Euskal Filologian diplomaturatua izatea. Beste diplomaturaren bat izan eta euskara arloan lan egindako jendea ere onartuko da. Baldintzak betetzen dituztenek izena ematen dutenean ikasketak eta merituak kontutan izanda zerrenda osatuko da. Euskara Zerbitzuko langile baten ordezkapena egiteko norbait aukeratzekoan merituaren arabera puntuazioa jarraituko dute, beti ere lanpostua zerrendan lehenengo dagoenak beteko duelarik. Lan poltsan sartzeko eskabidea eta curriculumak Udaleko Euskara Zerbitzura (Nafarroa Plaza, 3 Kultur Etxea) eraman behar dira goizez, martxoaren 20a baino lehen. Informazio gehiago 943 74 43 66 telefonoan.

• **Langabetuen izako programa berria jarriko du martxan Sartuk Elgoibarren**

Sartuk, formazioan, enpleguan eta gizarteratzean aditua den taldeak, denbora luzean langabezian dagoen jendearentzat programa bat jarri nahi du martxan Elgoibarren. Sartuk, INEMekin, Eusko Jaurlaritzarekin, diputazioekin eta udalekin elkarlanean, dohaneke zerbitzuak eskaini ohi ditu. Elgoibarren Udalarekin elkarlanean hainbat plangintza egin ditu orain artean. Orain, Sair programa jarri nahi dute martxan denbora askoan langabezian daudenak gizarteratzeko. Izena ematea edo informazio gehiago jasotzea nahi dutenek 94 620 04 49 telefonora deitu behar dute.

**Bi udaltzain berri aukeratzeko frogak hasi dira**

Aukeraketa prozesua martxoan amaituko da

Martxan daude dagoeneko bi udaltzain berri aukeratzeko frogak. Pasa den asteazkenean, martxoaren lehen izan zen lehendabiziko frogak, frogak fisikoa, hain zuzen ere. Guztira, zazpi frogak egin beharko dituzte udaltzain izan nahi duten hautagaiak. Gainontzeko 6 frogak beste bizpahiru egunetan egingo dira martxoan, gutxi gorabehera bina egun bakoitzean. Udaltzaingotik adierazi digutenez, bi udaltzain berriak aukeratzeko prozesua martxoan bertan amaitzea espero dute.

Hasiera baten 15 izan ziren bi udaltzainen lekua betetzeko aurkeztu ziren hautagaiak. Baina horien artean hiru ez ziren onartu, baldintzak betetzen ez zituztelako. Gainontzeko hamabiek, euskara frogak egin zuten. Euskararen bigarren perfila gainditu behar izan zuten hauek edo gainditua dutela erakutsi EGA edo bestelako frogariarekin.



*Hamabi lagun ari dira udaltzain postua lortzeko frogak egiten.*

Udaltzaingoan bi udaltzainen postuak hutsik gelditu dira, orain artean lanean jardun duten bi, jubilatu egin direlako. Apurka-apurka hautagaiak frogak egiten joango dira eta martxoa amaitu baino lehen, bi udaltzain berri edukiko ditugu Elgoibarren.

*txotx!*

# erTorneria

sagardo kupela

pintxoak

gazto eta menbriloa

*Italatba*

*eta tytubulablezat, l*

aurrak

joicsoak

**Eguna:** martxoaren 17a, ostirala

**Tokia:** Kultur Etxeko sotoa

**Ordua:** Asteleko 21:00ak

**Prezioa:** 500 pta.

**Izena emateko:** martxoaren 10a baino lehen euskaltegietan edo Elgoibarko Izarran (943 74 16 26)

\*Afal ostean, aurretik izenik eman gabe ere sartu ahal izango da.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte • AEK Euskaltegia

Udal Euskaltegia • Elgoibarko Udala



## IRATZE ESTEIBAR:

# "Baserritik bakarrik bizi direnek laguntza bereziak jasotzen dituzte"

*Iratze Esteibar zumalatra da eta aldi baterako etorri da lanera Elgoibarko Nekazal Bulegora. Baserritarrek urtero jaso obi dituzte dirulaguntzak Europatik eta laguntza horien tramitazioa egiten du Iratzek, Nieves Loiolari eta Miren lagunduz. Aurten estrainakoz jarri diete laguntzailea bulegoan, izan ere, sanamendu kanpaina ere orain tokatzen da eta lan asko pila-tu zaie. Beraiekin izan gara baserritarrentzako laguntza hauei buruz hitz egiteko.*

**- Urtero egiten da laguntzen tramitazioa garai honetan, ezta?**

- Orain dela 10 urte esplotazioen errolda egin zen. Hasieran ganaduak zeuzkatenak bakanik sartu zituzten -erregistroan, baina piskanaka ganaduak ez zeuzkatenak eta lurrrert jabeak ere sartu ziren. Egun, ganaduen eta mendien inguruko laguntzak eskatze-ko derrigorrez erroldatuta egon behar da. Urtero errolda benitu edo berdin edukiz gero, baieztatu egiten da eta gero laguntzak ematen dira.

**- Zertarako egiten da laguntzen kontrola?**

- Europatik bidaltzen duten dirua kontrolatuta izan nahi dute. Noizean behin Diputaziokoei auditoriak egiten dizkiete eta guk kontrol egokia egin gahe badaukagu, hona datozela esaten duten momentuan bertan ezin da ezer egin aurrez kontrol zehatzik egin ez bada. Sanidade aldetik ere komeni da kontrolatzea. Sanamendu kanpainak egiten hasi ginenetik hona, gauzek hobera egin dute. Hala ere, beti gainean egon behar da, brotea sortzeko oso gutxi behar izaten baita. Horegatik kontrolatzen da kanpotik datorren ganadua. Muga gaude eta ganaduen salerosketa handia izaten da inguruotan.

**- Zein motatako laguntzak izaten dira?**

Abelhuru bakoitzeko kopuru bat ematen da. Oinarritzko laguntza bat ematen diete kupoen arabera, eta ondoren, terrenoei dagozkien laguntzak ere ematen dituzte. Badira terreno asko eta ganadu gutxi dituzten baserritar-rrak eta Europak hori saritu egiten du. Horregatik, batzuei zazpi behiren lekuan, bost edukitzea komeni zaie eta terrenoei dagozkien laguntzak jasotzea. Baina baserritar-rrak kopuru konkretu batekin ohi-tuz gero, ez dira konturatzen hehi gutxiago izatea agian errentagarriagoa aterako tzaikela. Baserritik bakarrik

bizi denari ere laguntza bereziak ematen dizkiote.

**- Denborarekin zuen lana egiteko moduak ere aurrrera egin du.**

- Bai, hala da. Lehen ordenagailuak bazeuden, baina prognuna berriek lana enazten dute. Orain dela pare bat urte jarri zuten hau martxan eta orain basenitturek datu okenak ekarri arren, ordenagailuan zuzenketak modu enazean egin daitezke.

**- Txahalen jaiotzak ere ordenagailu bidez kontrolatzen dira, ezta?**

- Txahala bat jaito orduko jabeak telefonoz deitzen du. Kodigoa eta ama zein den esaten digute eta amaren kodigoa zuzen ez badigute esaten, ordenagailuak segituan igartzen du akatsa. Hasieran zaila izango zela pentsatzen genuen, baina piskanaka baserritar-rrak ohitu egin dira eta txahala jaito eta berehala deitzen dute. Ondoren, astean joaten dira txapak jarri eta dokumentazioa ematera, baserritarrei gainera, gustatzen zaie agiriren bat izatea.

**- Baserritar-rrak erraz etortzen al dira Nekazal Bulegora?**

- Lan handia egin dugu hemen ari garenok, baina piskanaka edukatu ditugu eta orain erraz etortzen dira. Hona etorri eta baserritar-rrak beraien artean hitz egiteko aprobetxatzen dute eta ekainean laguntzak iristen direnean asko pozten dira.



# Baserri inguru etansortutako plastikoaren 1311keta



*Baserri giroan birziklapena ez daukate ahaztuta eta hori horrela dela frogatzeko DEBEMENek, Deba Beheko Mendi Nekazaritza Elkartek, baserri ingunian sortutako plastiko mota batzuk biltzeko zerbitzua jarri du martxan. Gipuzkoako beste hainbat eskualdetan proiektuak erantzun ona izan duela ikusita, belarra biltzeko erabiltzen diren plastikoak batzen hasi dira Deba Behean ere. Hilabeteen behin batuko dira plastikoak horretarako apropos izendatutako lekuetan.*

**D**EBEMENek martxan jarri duen bilketa programa honen bidez, siloa estaltzeko plastiko beltza, belar boloetan erabiltzen dena eta negutegietako zein ortuetako lurra estaltzeko plastiko beltza bilduko dute.

Bilketa zerbitzua nahiko berria da, izan ere, joan den urtarrilean jarri zen martxan. Lehenengo hilabetean jendearen ezjakintasuna zela-eta, oso plastiko gutxi jaso zela adierazi digute DEBEMENeko ordezkariak. Baina otsailean emaitzak oso bestelakoak izan dira: guztira 1.600 kilo plastiko batu dira Debabarrenean, Elgoibarren, Deban eta Mutrikun. Izan ere, Eibarren eta Sorraluzen, Udaletxeko brigadako langileak arduratzen dira plastikoak biltzeaz. Elgoibarren Metalkuan eta San Migelen bildu dute plastikorik gehien eta Urruzunon esaterako ez da batere batu.

### Plastiko beltza bakarrik

DEBEMENetik baserritarrei gogorazi nahi zaie plastiko hau erretzea debekatua dagoela eta komenigarria dela herri bakoitzean zehaztuta

dauden puntuetara ateratzea horretarako izendatutako egunetan. Bilketa hilabete bakoitzeko hirugarren asteazkenean egingo da. Bezperan arratsaldeko 17:00etatik aurrera zehaztutako puntuetan kokatutako hezi horien ondora atera behar da plastikoa. Gainera, modu egokian jartzea komeni da, haizea egonez gero plastikoak aireratu eta banatu ez ditzan. Bestalde, argi izan behar da beste edozein plastiko mota, olioekin zerikusia duten produktuak eta beste hondakinak ezin izango direla plastiko beltzarekin batera bota.

Plastiko guztiak jaso ostean, Adunara eramango dituzte, bertan paketetan bildu, eta handik Legazpira bidertuko dute han birziklatzeko.

Zerbitzu berria da hau eta aurrera ateratzeko finantziabidea Gipuzkoako foru Aldunditik eskuratu dute DEBEMENekoek.

Gai honen inguruko informazio edo argibide gehiago nahi duenak, Deba Beheko Mendi Nekazaritza Elkartera (DEBEMEN) jo dezake edo baita 943 74 40 67 telefonora deitu ere.

### **BILKETA EGUNAK \***

**MARTXOAK 15**

**APIRILAK 19**

\*Gogoratu plastikoak bezperan atera behar direla izendatutako lekuetara

### **BILKETA LEKUAK**

**SAN LORENTZO**

- Plazan, kontenedoreen ondoan.
- Madarixako bidegurutzean.

**URRUZUNO**

- Beheko bidegurutzean

**SAN MIGEL**

- Metalkuan
- Plazan, kontenedoreen ondoan.

**SAN ANTOLIN**

- Poligonoan
- Lizundia baserrian

**SAN ROKE**

- Plazan.



# MUSILLO baserria

*Musillo baseniak bi etxebizitza ditu. Gu batean izan gara eta bertako etxeokandreaekin jardun dugu hizketaz baserriko biznoduari eta bertako kontuei buruz. Sukaldean hizketaldibcoa izan ondoren, atera hurbildu bezain pronto ikusi ditugu senarra eta alaba sinzaurra zelaira ateratzen. Baserritarrak langile finak diren seinale.*



## Telefonoa asmakizunik onena

Telefonoa jarri zutenean Pakita ez omen zegoen oso konforme, gastua baino ez zela izango uste baitzuen, baina denborarekin asmakizun paregabea dela antzeman dio. "Ingresauta egon nintzanean neuk apreziau naban gehixen telefonoa, etxekuekin berba eitxeko modua nakan-eta". Basetian norbait gaizki egonez gero abisua emateko telefonoa beharrezkoa dela ikusi du Pakitak.

\*\*\*\*\* ●●●●●●●●●● \*\*\*\*\* ●●●●●●●●●● \*\*\*\*\* \*\*

Pakita, Markina-Etxelieniko Baltzola basenian bizi zen bere gurasoekin, ton-amonekin eta anai-arrebekin orain dela 46 une inguru. Hasieran penaz utzi zituen jaiotetxea eta umetako lagunak, baina denborarekin ohitu zen. "Basertixa erosi genduan eta honaxe etorri ginan bizitzera. Gero, familixan lehenengo ezkondu nintzan eta baserrixan bertan geratu aitzakin da amakin. Gainontzeko analarrebak kalera jun zian". Gizona Arostegi basenikoa da, orain Musillokoa edo berak esan ohi duen bezala "inungua". Juan Jose orain jubilatuta dago, baina gaur artean lantegian aritu izan da lanean, alaba ere 15 urte zituenetik kanpoan eta etxean Pakitak egiten zuen lan. "Anaixak laguntzen zian, baina beste danak kanpuan zaozenez nik gobernatzen nitxuan inguruak".

## Genero ona

A.spaldion ganadua eta baratza etxerako baino ez dauzkate, baina garai batean kalera ere saltzen zuten esnea. "Hona etorri ginanian amak eta nik neuk ere bai, esnia etarutzen genduan kalera. Aitxa hil zanian laga in ginon. Negoziarik ez zan eitxen eta atzeraka ibiltzekotan kendu eta bakia". Aurten arkume asko jaio dira, baina ez dituzte saltzen, hauek ere etxerako izango direla esan digu Pakitak. "Nere gizonak askotan esaten dau gauza onak inori eman eta guk geure etxian eskasak jateko, hobe dala geuretzat lagatzia". Musillo baserrian jaten den generoa, beraz, naturala da. "Hemendik ateratalco ganauek esnia, artua garagartixua eta babaixua besterik ez dabe jaten eta txahalak karnizerixan sekulako estimaziva eukitzen dabe". Inoiz barazkiak kalean saldu izan dituzte, baina gutxi, denboraldilco lantzean behin baino ez.

Baserriko lanak asko erraztu direla esan digu Pakitak, "lehen idixekin eitxen zan dana, oin berri, traktoriakin. Bedana mozteko ere ibiltzen da segia, baina

generalian segadoriakin eitxen da lan. Lurra goldatzeko golda haunditxik traktorera pasau da". Baserritik kalera eta alderantziz ibiltzeko autoa ere asmakizun ona izan da. "Nik neuk traktora ibiltzen badakit, baina karnetik ez dakat kotxerako. Oin ez daki inok hankaz ibiltzen. Kalera edo auzoko baserriren batera juteko beti kotxia hartzen dabe. Nik neuk ere kalera zeozertara jun bihar dotenian eta inor etxian ez dauanian taxiari diar eitxen diot", esan digu Pakitak. Etxeko denak aritzen dira lanean, seme-alabek kaleko lanetik denbora apur bat ateratz. en dute-nean, baserrian laguntzeko aprobeztatzen dute. Baserrian ez dute oponik izaten, baina Pakitak berak ere ez du horren gustuko hara eta hona ibiltzea. Gainera, baserrikoa oso bizimodu lotua da, "Txokolatia eta ogixa ganaueri eman eta ezin da hor ziar jun".

Seme-alabek baserriko bizimoduari jamituko dioten galdetu diogunean, zailantza aurpegia jarri du Pakitak. "Kalera ez dakit jungo liaken, baina hemen ganaua gehitziak ez diue graziarik eitxen. Aitxa kanpuan dauanian eurek in bihar izaten ditzue lanak, baina ez jakue gehixegi gustatzen. Gu umetatik ohitxu gera, baina seme-alabek laguntzeko lain besterik ez dabe in nahi izaten".

Musillo baserrian ogia egiteko labea daukate, baina aspaldian langintza hori lagata dute. Lehen etxerako eta ingurukoentzak egiten zuten ogia, baserriko ogia denok baitakigu ona dela. Orain ordea, Antxolatik edo kaletik ekartzen dute eguneroko ogia. Pakitak berak esan digunez, "neri asko ez dia inporta, baina gurian gaztiekin eguneroko ogixa nahi izaten dabe".

## MUSILLO

**Auzoa:** San Lorentzo

**Bizilagunak:** J. Jose Etxaniz

Iriondo, 65 urte; Pakita Arrillaga

Arrillaga, 60 urte; Mari Sol

Etxaniz Arrillaga, 41 urte; Jose

Angel Etxaniz Arrillaga 29 urte.

**Lur hedadura:** 12 hektarea

**Esplotazioa:** Larrerako 3

behi eta 3 txahal. Horrez gain 254

ardi ere badituzte. Baratza ere

badute etxerako.

Distantzia: 38 km.

Denhora: 8 ordu

Zalltasuna: zaila

# MENDIRIN mendi

## ELGOIBARKO ITZUL1A MENDIZ-MENDI



*San Migelko frontoian atsedean hartu ondoren, aldapan gora Morkaiko mendirantz abiatzeko prest izango gara.*

Buelta gogor xamarra da, baina mendia gogoko duten elgoibartarrentzat gomendagarria. Izan ere herri inguruko mendiak eta parajeak ezagutzeko aukera izango du ibilbide hau egiten duenak.

*San Pedro bailara izango da Elgoibarko mendi itzulian bisitatuko dugun azken auzoa.*

**Informazioa:**  
Jon Peli Uriguen

• **1** Elgoibarko Plazatik abiatu eta kalean gora San Roque bailarako ermitara helduko gara. Bertan gora segi eta Agarre baserriaren parean ezkerretara jarraituko dugu. Errepidean gora egin eta Berasetan mendiko pista hartuta Karakatera iritsiko gara.

■ **2** Karakatetik Hirukurutzetarako bidea lasai antzean egingo dugu, bertako monumentu megalitikoak eta clohneak ikusiz.

■ **3** Hirukurutzetatik behera, Sargoaten barrena Azkartera jaitsiko gara. Bertan, Madarixako bideruntz joan eta segituan ezkerretara egingo dugu mendi bidetik Urnobotza mendira heldu arte.

■ **4** Urnobotzatik zuzenean jaitsita Altzolara iritsiko gara, enepide generalera. Bidea gurutzatu, eta Altzolako Balnearioko edifizioaren azpiko tuneletik San Migeleko bidea hartu eta Bioin ondotik San Migel bailarako frontoira iritsiko gara. Bide hau gutxitan erabiltzen denez, agian sasiak aurkituko ditu bertatik ibiltzen denak.

■ **5** Pelotalekuaren alboko bidetik gora segi eta azkenean eskumara hartuta Morkaikoko tontorrera iritsiko gara. Ondoren, zuzen jaitsiz gero, Hiruiturrira helduko gara.

le **6** Kalamuara zuzenean igo eta beste alderantz jaisten bagara. Armasio baserria pasatu eta Aubixara iritsiko gara.

• **7** Mendiko pistan barrera pasiaran San Pedroraino joan eta Moru mendirako bidea hartuko dugu. Bertatik behera egin eta Saturixotik Elgoibarrera heldu arteko bidea jarmituko dugu.



**Argazkia:**  
'Elgoibarko baserriale liburutik



*Karmel Leonek 20 urte ditu edo 5 besterik ez. Zein aldetatik begiratzan denarett araberakoa da hori. Izan ere, Karmel bisiestoa da eta egutegiari erreparatuta, urteak lau urtean behin betetzen dituenetz, ofizialki 5 urte edukiko lituzke. Berak, urtebetetzea urtero ospatzen duela, baina urteak lau urtean behin betetzen dituela aitortu digu, irrifar artean. Aste honetan, otsailaren 29an bere urtebetetzea izan deuez, berarekin hitz egin dugu bisiestoen berri zerbait gehiago jakin nahian.*

# KARME LEON

## "Ez jata inporta febreruan 29kua izatia"

— **Zenbat urte dituzu, Karmel?**

- Oin, eukitzez, 20 urte dauzkat, baina urtiak kunplitzen ditxutenian, nola lau urtian behin izaten dan, beti esaten dot edade bajuaua, "morbo" piska bat dauka-eta. Lehenengo, daukaten edadia esaten dot beti, baina gero bestia. Lagunek ere, kuadrilan, nola bisiestua naizen, "zuk lau urte ditxuzu" eta horrelakuak esaten dizkiate.

— **Urtebetetzea urtero ospatzen al duzu?**

- Urtero-urtero zelebrazten dot. Otsailan 28xa piska bat pasautu jaixo nintzn, lau edo bost ordu beranduau. Horregatik normalian otsailan 28an zelebrazten dot, gertuau geratzen jata-eta. Behin edo behin in dot marxuan I tan, baina nonnalian febreruan 28xan zelebrazten dot.

— **Umetan nola bizi izan zenuen biblikeria hau?**

- Umetan ere urtero zelebrazten naban. Txikixak gina-

nian nik ere ez nakixan ondo zer zan, baina merixendak urtero itxen genduzen. Lagunei esplikatzan niuen lau urtetik behin betetzen nitxuala urtiak, bisiestua izatiagatik, baina eurek ere orduan ez zakixen ezer. Gero, edade gehixaokin, gauzak esplikau eta gero, ententitxu zaben. Egixa esan, bastante esplikau bihar izan dot. Oin, piska bat edadetu geranian **ez**, baina lehen, txikitant, ikastola garaixan, bastantetan ibili nitzan batari eta bestitari esplikatzan.

— **Inoiz eduki al duzu arazorik?**

- Sekula ez dot problemarik euki. Ertzantzara jun naizenian karneta renobatzera, jaiotzeko fetxia esan eta "zu bisiestoa zera" esan izan diate. Beti horixe esaten diate baina bestela ez dot inungo arazorik euki.

— **Data horretan jaiotzeagatik inoiz arrarora sentitu al zara?**

- Arrarora ez. Fetxa horre-

tan jaiotziagatik diferentia naizela pentsau izan dot. Nola lau urtian behin tokatzen dan, arrarua ez, baina diferentia bai sentitxu naiz, gauza kuriosua da-eta.

— **Gogorra al da egutegira begiratu eta zure jaiotze eguna ez dagoela ikustea?**

Gogorra da, bai. Askotan pasau jata. Jendiari esan izan diot: "aurten ez dot kunplitzen, beixu kalendarixuan, ez dao". Kunplidu bai, kunplitzen dozu, hori kjaru dao, baina ez da agertzen. Ez da ahizteko fetxia, ez, lau urtian behin tokatzen jatxu eta ez dozu ahizten. Lau urtian behin tokatzen jata eta tokatzen jatanian ondo zelebrazten dot. Gainera, neri ahizten bajata, bai periodikuan edo baitxa telebistan ere, urte bisiestua dala aipatzen dabe eta gogorarazi itxen die.

— **Beste egun batean jaiotze gustatuko litzaizuke?**

- Ez jata inporta. Aukeran, gustura nao, nahixao dot, diferente izatiarren. Nahixao dot igual egun hau, destakau itxen dabalako.

— **Bisiestoen bilkuraren batera joate pentsatu al duzu inoiz?**

Urte bisiestua tokatzen danian, bisiestuen reunixuak egoten dia. Sekula pentsau dot jutia. Baina ondiok gaztia naiz eta ez naiz jun, eukiko dot astixa juteko. Oin dala lau urte pentsau naban jutia, baina barruk nauan juteko eta ez nintzan jun. Aurten 20 urte ditxu eta lau urte barru, 24 ditxutenian orduantxe jungo naizela pentsau dot. Nere egunian urtiak betetzen ditxuenak ezautzia nahi dot. Gainera, gutiak. nere edadia daukatenak, eongo dala uste dot. Nagusixuak bai, baina baitxa 20 urtien bueltan dabizenak ere.

### S'ESTEER · ESANA

"Urteak pasa arren luzaroan gazte jarraituko duen mutil jatorra da." MARIA LUISA LEON, arreba.



• • • JAIOTAKOAK • • •

- Laura Alvarez Gallardo (Otsailak 1)
- Miren San Andres (Otsailak 1)
- Ianire Izagirre Lopez de Bergara (Otsailak 12)
- Asier Zabaleta Arreitunandia (Otsailak 15)
- Julen Guillo Rodriguez (Otsailak 20)

• • • EZKONDUTAKOAK • • •

- Jose Luis Niebla Huidobro eta Ma del Rosario Moreno Herrera (Otsailak 26)

• • • HILDAKOAK • • •

- Inazio Zubiaurre Azpiazu, 48 urte (Otsailak 6)
- Domingo Garate Gabilondo, 39 urte (Otsailak 7)
- Pompeyo Gonzalez Andres, 75 urte (Otsailak 9)
- Nicolas Antxustegi Arrizabalaga, 76 urte (Otsailak 9)
- Felisa Arriola Zubiaurre 81 urte (Otsailak 10)
- Juana Lizarralde Txurruka 70 urte (Otsailak 20)

## Mari Juana aniesti Zenamprabeitia (1911-19e7)



- 1911ko urriaren 22an jaio zen. Larruskaingo Agonixa baserrian. 6 anai-aireba izan ziren, bera biga-irena. Umetan, Larruskaingo eskolan egin zituen ikasketak. Familiakoei lanean lagunduaz, jaietan eta koadrilakoekin batera etxe aurrean jolastuaz pasa zuen ume sasoa.
- 13 urterekin, Mutrikuko mojen eskola batera joan zen lanera, eta 16 urte bete arte egon zen bertan. Oso estimatua izan zen mojen eskolan.
- Gero, lehengusina batek Bilbora eraman zuen urnezain lanalc egitera eta 2 urte inguru egin zituen. 19 urterekin Elgoibarrera etorri zen eta "Kafe Izeta" ( Bar Gabi dagoen lekuan) famatuan urbitzari lanean hasi zen. Erromeri batzuetan ere egon zen.
- 21 urterekin, Elgoibarren ezkondu zen San Roke bailarako "7dandi" baserriko Agustin Aizpitarerekin. Agustin, "Eseopetas Elgoibarresas" enpresako bazkideetarikoa bat izanik, eskopetero famatua izan zen. 3 alaba izan zituzten: Isabel (t), Isahel eta Ana. Suiaki, berriz: Luis IVP Iriondo eta Sebas Uncilla.
- 31 urte zituela, "ultramariño" denda ireki zuen San Bartolome kalean. Emakume langilea, alai eta jentio apalekoa zen. Geroago, 2 alabak berarekin hasi ziren lanean eta urte luzez egon ziren hirurak denda. Zintzo jokatu eta trebetasunez lan eginaz, ospe handia lortu zuen hezeroen artean. Azkenik, denda handitu, eta supermerkatua eduki zuen leku bc.-rean.
- Juana elgoibartar petoa egin zen urteen joanarekin, eta henian "Juanita txatia" ezizenarekin zen ezaguna.
- Lagun artea eta famili giroa atsegin zituen sinesmeneko emakume honek. Lourdes, San Antonio, Arrate eta beste hainbat lekutara egin zituen bidaiak. Zaletasunei dagokienez, paseatzea, karta jokuan egi- tea, euskal kantak ahatea eta jubilatuetara joatea zituen gogoko.
- 1997ko martxoaren 28an hil zen, 85 urte zituela.

Juanito Gorostiza

## ETXEBERRIA

### Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI eta KONPAINIEI  
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGO1BAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01





ti

# A

ste honetako erretratu zaharra 1950. urtean ateratakoa da. Argazkia Usetxe baserriaren kanpoko aldean edo atarian aterata dago.

Gaur Egun Usetxe kalea dagoen lekuan zegoen baserri ospetxu hau, tren geltokia edo apeaderoa dagoen inguruan, Deba ibaiaren ertzean, hain zuzen ere.

Argazkian agertzen diren neska-mutil guztiak Usetxe baserriko senitartekoak

dira. Atzeko aldean ikusten den ur depositoa baratza ureztatzeke erabiltzen zuten eta honen atzean ikusten den harrizko hesiaren beste aldean errepeidea pasatzen zen.

Hona hemen agertzen direnak nor diren; atzean, ezkerretik eskumara: **Maria Pilar Iribarren, Mari Karmen Zubiaurre, Mertxe Iribarren, Txomin Iribarren eta Maria Luisa Iribarren.**

Beheko ilaran: **Maria Luisa Zubiaurre, Iñaki Zubiaurre eta Maria Jesus Zuloaga (t).**

## Okerrak zuzenduz

309. aleko BARREN-eko erretratu zaharraren atalean atera genuen argazkian txistularia Patxiko Etxeberria zela jarri genuen, baina informazio hori gaizki zegoen. Irakurle batek deitu digu gure okerraren berri ernateko eta argazkian agertzen zena Felix Ansola zela argitzeko. Barkatu gure errua eta mila esker irakurie prestu horri.

# 3 talde eta 2G txirrindulari dit aurten "Elgoibarko Lagun Taldear

Txirrindularitza denboraldia martxoaren 4an hasiko da

**E**lgoibarko "Lagun Taldea" Txirrindulari Eskolaren aurtengo plantilak duela astebete inguru egin zuen aurkezpen ofiziala. Aurten, 26 txirrindularik osatzen dute taldea. Guztira hiru talde daude: jubenil mailako taldean 9 txirrindulari daude, eta beste behin, 'Ciclos Iturriaga' Durangoko bizikleta etxearen izenean parte hartuko dute. Kadete mailan, berriz, 8 txirrindulariko taldea osatu da 'Fontaneria Pagoaga' etxeak patrozinatuta. Azkenik, infantilen eta alebinen taldean 9 mutiko daude, eta Eibarko 'Ciclos Iiingo' etxearen babesarekin jasoko dute. Kadeteak izango dira denboraldia estreinatuko duten lehenbizikoak, izan ere, zapatuan, hilaren 4an, izango da lehen lasterketa Beasainen. Jubenilek domekan korrituko dute Eibarren. Infantilek, berriz, martxoaren 25era arte itxaron beharko dute lehen pedalkadak emateko. Taldearen argazkia-



ren alboan Elgoibarko Lagun Taldea osatzen duten txirrindularien eta entrenatzaileen izenak azalduko dizkizuegu.

**JUBENILAK** goiko ilaran, ezkerretik hasita: Ramon Dominguez, Egoitz Mendikute, Josu Mancha, Ander Vega, David Ferreiro, Josu Perez, Jon Garate, Thigo Lariz eta Ander Etxabe.

**KADETEAK** erdiko ilaran: Jon Vicente Lopezosa, Aitor Oñederra, Iban Gonzalez, Oscar Cordon, Joseba Gonzalez, Iago Santos, Aitor Calviño eta Asier Perello.

**INFANTILAK ETA ALEBINA K** Aitor Fernandez, Beñat Gutierrez, Ruben Mancebo, Victor Galdeano, Asier Arregi, Aitor Arosa, Alberto Arberas, Adrian Chico eta Jokin Salegi

**ENTRENATZAILEAK:** Eneko Ramos, Iker Amutxastegi, Alexander Babarro, Valentin Romera eta Orkatz Amutxastegi. Faltza direnak: Juan Ramon Bellon, Aitor Romera, Felipe Calleja eta Tomas Salegi.

## • Tddoturisten irteera martxoaren 5ean

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 5ean, izango da 9. zikloturista irteera. Goizeko 10:00etan Txankakua zubitik abiatu, eta honako hau izango da egingo duten itzulia: Deba, Itziar, Oikia, Aizarnazabal, Zestoa, Azpeitia, Azkoitia, Azkarate eta Elgoibar. Guztira 64 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

## Dorleta Aranberri eta Nerea Zublaurre Gipuzkoako selelarioarekin arituko dira Euskadiko Eskolarteko Kros Txapelketan



Hazi eta e o laster k, pisu jaurtiketa eta altuera jauzia ikusteko aukera izan z kan 11 "ntxetan.

Pasa den domekan, otsailaren 27an, Gipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketa jokatu zen Oñatin. Bertan, Mintxeta-Egondo Atletismo Taldeko 21 korrikalarik hartu zuten parte. Dorleta Aranberri eta Nerea Zubiamen izan ziren gehien nabarmendu ziren elgoibartarrak. Dorleta 5. postuan sailkatu zen, eta Nerea, beniz, 6. postuan, biak ere infantil mailan.

Emaizta hauei esker, Gipuzkoako selekzioak bi atleta elgoibartarrak konbokatu ditu Euskadiko Eskolarteko Kros Txapelketan parte hartzeko. Lasterketa Bizkaian izango da martxoaren 19an. Gainontzeko elgoibartarrek ere emaitza onak lortu zituzten, mutilen alebin mailan, Aitor Arrillaga 4. postuan iritsi zen helmugara eta nesketan, berriz, Lara Urain 14. iritsi zen.

Bestalde, pitalco atletismo txapelketa jokatu zen zapatuan, hilaren 26an, Mintxetan. Probalek Gipuzkoako Atletismo Txapelketara sailkatzeko baliagarriak ziren, eta benjamin, alebin eta infantil mailako hainbat atleta gaztetxok hartu zuen parte beste proba ugarietan. Guztira, Elgoibarko, Eibarko, Mendaroko eta Arrasateko 100 atleta inguruk hartu zuten parte.

CO  
-J

O  
CC



# P11011113X Elgoibar eskubaloi taldea Gipuzkoako txapeldun

Apiriletik aurrera Euskal Ligan sailkatzeko igoera fasea jokatuko dute

Dneumax Elgoibar benil mailako muti- len eskubaloi taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi du. Denboraldia urrian hasi zenetik partidu bakarra galdu du taldeak eta bera gol bakar baten aldeaz izan zen. Garaipen honi esker, datorren urtean Euskal Ligan parte hartu ahal izateko igoera fasea jokatu-ko dute elgoibartarrek. Igoera fasea Bizkaiko eta Arabako txapelketa aurka izango da, Bizkaiko 'Eseolapios' eta Arabako 'El Pilar' taldeen aurka, hain zuzen ere.



*PNEUMAX ELGOIBAR. Atzean ezkerretik hasita: Jose Perea, Aitor Rosario, Goiatz Leibar, Aitor Dorado, Oier Konde, Josu Motriko, Iban Herrero, Eduardo Etxeberria, David Bilbatua eta Mikel Sagasta (delegatua). Makurtuta: Josu Galarraga, Jon Larrañaga, Fernando Etxeberria (delegatua), Mikel Elustondo, Gorka Garaizabal, Joseba Sabasta eta Ion Agirregomezkorta.*

Igoera fasea apirilaren 8an hasiko da eta 3 taldeek elkarren aurka bi partidu jokatu-ko dituzte, bata etxean eta bestea kanpoan. Euskal Liga jokatzeko bi talderik onenak sailkatuko dira. Dena dela, Pneumax Elgoibar jubencil taldearen emaitzez gain, kadete mailako taldekoak ere kontutan hartu-

ko direla argitzea komeni da. Eneko Kortaberria Pneumax taldeko entrenatzailea itxaropentsu dago, "pasa dan urtian mailaz jaitsi ostian, aurtun berriz berreskuratzeko aukera daukagu, Elgoibarko eskubaloiak Euskal Ligan jokatzeko maila dakala uste dot-eta".

## J. M. Arakistainek Haundi taldea entrenatzeari utzi dio osasun arazoak direla-eta

Iñigo Arriolak ordezkatzeko du Arakistain falta diren partiduetan

**A**urtengoa Haundi taldearen ez dela argi baino argiago geratu da aste honetan. Iaz mailaz jaitsi ondoren, sailkapenaren azken postuetan egotea nahiko egoera larria izanik ere, zorte txarra ez omen da bakarrik etortzen, eta aste honetan jakin dugu Arakistainek Haundi-ko entrenatzaile kargua utzi behar izan duela osasun arazoak direla-eta. Duela bi aste UPV taldearen aurka jokatu zuten partiduan ondoezik sentitu zen Arakistain, momentuan garrantzi larregirik eman ez bazion ere, ondoren medikuek bihotzekoak eman ziola argitu zioten. Orain azterketen emaitzen zai dago Arakistain,



**IÑIGO ARRIOLA**

irabazi baitzioten Errealari. Dударik gabe, jokalariek garaipena Arakistaini eskaintzeko irrikitan zeuden eta gogo biziz jokatu zuten partidua. Gure aldetik ahalik bizkorren senda dadila opa diogu Arakistaini eta ea jokalariek poztasun gehiago ematen dizkioten.

baina jadanik etxean da. Bitartean Iñigo Arriola elgoibartarrak, orain arte delegatu lanetan ibili denak, hartu du Haundi taldea entrenatzeko ardura. Entrenatzaile titulorik ez izan arren, berak beteko ditu funtzio guztiak. Momentuz ezin hobeto hasi du bere ibilera, pasa den domekan liderraren etxean 0 eta 1

irabazi baitzioten Errealari. Dударik gabe, jokalariek garaipena Arakistaini eskaintzeko irrikitan zeuden eta gogo biziz jokatu zuten partidua. Gure aldetik ahalik bizkorren senda dadila opa diogu Arakistaini eta ea jokalariek poztasun gehiago ematen dizkioten.

### EMAITZAK

#### Futbola

Real Sociedad B 0- Haundi 1 (3. maila)  
Elgoibar 7 - Hondarribia 0 (Neskak)  
Elgoibar 3- Real Union 0 (Jub. E.L.)  
Elgoibar 6- Loiolako 0 (1. erreg.)

#### Eskubaloia

Pagoaga Elg. 23- Urdaibai 15 (Kad. nesk.)  
Gaur Elg. 20 - B.K.L. C.A.F. 14 (Kad. mut.)  
Loyola 9 - Tecnomeca Elg. 31 (Kad. mut.)  
Unceta Elg. 26 - Urdaibai 23 (Jub. neska)  
Leizaran 24 - Pneumax Elg. 29 (Jub. mul.)  
I.M.S. Elg.16 - Umietaka K.E.15 (Sen. neska)  
I.M.H. Elg. 36 - Donibane Maj.26 (Sen. mul.)

#### Esku pilota

Debarroko txapelketa  
Txurruka/Azalgirre 22 (Soraluze) -  
Ulazia/Loiola 5 (Lagunak)  
ErizLaskurain 22 (Soraluze) -  
Balzola/Lasarobaster 11 (Lagunak)

#### Areto Futbola

Zur Ta Lur 1- Limp. Antoñana 3 (1. maila)  
Zur Ta Lur 6- Pach. La Navarra 1 (Aulonom.)

#### Idarraga Kafeak 3. saria

HAUNDIko jokalariek erregularrena 99/00  
JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- Aranberri .....	33
2- Zulaika .....	28
3- Loren .....	27
4- Caslillo .....	26
5- Castro .....	26
6- Polo .....	21
7- Alberdi .....	20
8- Bagdi .....	20
9- Ibarluzea .....	19
10- Bravo .....	16
11- Diaz .....	15
12- I. Leonardo .....	12
13- Mikel .....	11
14- Ruiz .....	8
15- Guarrolxena .....	6
16- Manoto Ramos .....	4
17- Alkorta .....	4
18- Txasio .....	4
19- Caro .....	4
29- Edu .....	4
21- Fernandez .....	2

### i GENDA mi

#### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 4  
16:30 Haundi - Hernani (3. maila)  
18:15 Elgoibar- Oiartzun (Jub. E.L.)

#### Areto futbola

Eskualdeko I. Txapelketa  
larunbata, 4  
16:30 Guria Electricidad - Aixa  
18:30 Real Mehys - Eusko Label  
Igandea, 5  
10:30 Brujeria - Barrenkale  
11:30 The Ravel's - Culebrilla 2000  
12:30 Bar Gure Toki - Berriz

#### Eskubaloia, Kiroldegian

16:00 Tecnomeca Elg. - Urola (Kad. mul.)

# lilaiven' taldeak "Crimenes del corazon" antzezlanaren eskainiko du martxoaren 1 Oean Herriko Antzokian

Saioa, Beth Henley Pulitzer saridunaren idazianean oinarrituta dago

'Vaiven' antzeztaltleak "Crimenes del corazon" antzezlanaren eskainiko du martxoaren 10ean Herriko Antzokian. Jatorrizko testua Beth Henley idazle amerikarrak idatzitakoa da eta berari esker Pulitzer saria jaso zuen. Elgoibarretz ikusgai izango den hau Maribel Belastegiren zuzendaritzapean erderaz emango dute aktoreek gaueko 22:30ean hasita.

"Crimenes del corazon" zipristin dramatikoak dituen komedia garrantza da. Eguneroko drama txikiak kontatzen ditu, baina umore finez einanak. Saioaren hasieran, familia bat bildu egiten dela ikusiko dugu. Baina bilera horretara, familia-kideez gain, iraganeko mamuak ere hurbilduko dira. Etxe bateko leihotik barrera begira egongo bagina bezala, egunero familia guztietan izaten diren krimen txiki horiek ikusiko ditugu, denoi ezagu-



Antzezlanean zenbait aktore ezagunak hartuko dute parte, Olatz Beobidek eta Iñake Irastorzak besteak beste.

nak egiten zaizkigunak. Honakoa, 'Vaiven' taldearen bigarren ekoizpena da. Olatz Beobide, Iñake Irastortza eta Ana Pimenta, hiru euskal aktoreak elkartu, beraien ideiez eta kezkez hitz egin eta

proiektu bat antolatzen hasi ziren. Horretan ari zirela, Beth Henley-ren "Crimenes del corazon" antzezlaneanekin egin zuten topo. Talde honek aurkezten duen proposamena, Ana Pimentak eta Maribel Belastegik egin duten jatonizko testuaren itzulpenean oinarrituta dago. Une oro egileak sortutako egitura eta antzezlanean izaera gordetzen saiatu dira biak.

Emanaldian parte hartzen duten aktoreak antzerki munduan ibilbide nahiko luzea egindakoak dira. Iñake Irastorzaren eta Olatz Beobideren aupegiak beharbada ezagunak egingo zaizkie ikusleei, telebistan irteerakoak baitira. Ana Pimentak mehezimenduz irabazia dauka antzezle onaren fama "La Coraje" lanean. Maribel Belastegik eta Alberto Arizagak, besteak beste, "Modigliani" antzezlanean parte hartu dute eta Nati Ortiz de Zaratek, berriz, "La muerte de Mikel" pelikulan,

**atxutxi karaokea**  
**Martxoak 4**  
**5 etertik- etara**  
**- Plaza Namilan**

Lagorrepollegre  
 Eigsibortw  
 Evske 4faioricritzu

Antolatzaileak:  
 Elgoibarko Izorralua  
 ATXUTXIAPLAILKA 3.T.




# Inauteriak

Gustuko al duzu itxuraldatzea, mozorrotzea? Jazkietan ezezik, aurpegian ere aldaketak egin daitezke maskara bihurtuz. **Mozorrotzeko jazkirik aurkitu** ezean, norberak izara zahar batekin egin dezake jantzi bat. Oso aspaldikoa da mozorrotzeko ohitura, hau da, gure ohiko itxura ez denarekin azaltzeko joera. Erraldioen tankera hartu nahi izaten du txikiak, emakume bezala azaltzen dira gizonak... Guk hainbat aholku emango dizkizugu mozorro merke eta polit bat prestatzeko:



- Oihal bat hartu, erabiltzen ez duzuen izara zahar bat izan daiteke, eta soineko baten formarekin moztu.



- Ondoren jantzia norberaren gustura margotu. Kontutan izan behar da oihalaren azpian paper bat jarri behar dela beste aldea ere tindatu ez dezan.



- Oihalak lehortzean, alde bat bestearekin josiko dugu. Horretarako ez da makina beharrik. Jostorratza eta hariarekin puntada batzuk ematearekin nahikoa izango da.



- Jantzia soinean dugula, makilatzeko parada hartuko dugu. Makilajea ematen hasi aurretik, ileak zapi batekin biltzea komeni da. Margoen aurretik krema hidratantea emango dugu aurpegian, gero errazago garbitzeko.

- Aurpegia margo zuriz estali lehendabizi eta emaiizu ondoren makilaje koloreduna. Aurpegirako tela margotzeko erabilitako kolore beretsuak hartzea idea ona izan daiteke.

- Margotzea gustuko ez baduzue, maskara edo kareta koloredunak ere erabil ditzakezue, Horrela, ez du inork jakingo nor gordetzen den mozorro harren azpian.

- Burua apaintzeko lumak, loreak, zapiak zein txapelctk erabil ditzakezue.

Itxuraldaketa honen ondoren, mozorro jaira joateko prest izango zaro. Inauterietan diru asko gastatu gabe disfraz bat prestatzeko hona hemen modu egoki bat. Bestela norberak aurki diezala bere mozorroa eta ongi pasa inauterietan.



## ostirala

**19:00 ERAKUSKETA**  
"Emakumeak han eta  
hemen mundu berri bat  
erditzen"  
Kultur Etxean  
Antolatzailea: Haizea E.T

**22:15 ZINEA**  
"Sobrevivire"

## 4

## larunbata

**13:00 EH ALDERDIAREN  
MITINA**  
Hizlaria: Mahai  
Nazionalako kide bat  
Plaza Handian

**17:00 KARAOKEA eta  
MOZORRO DESFILEA**  
Plaza Handian  
Antolatzailea: Atmaxiainaka

**19:00 MAUXITXAREKIN  
KALEJIRA**

**20:00 ANTZERKIA**  
"Telebista Show"  
Gaztetxean

**19:30-22:15 ZINEA**  
"Sobrevivire"

**22:00 DANTZALDIA  
JOSELU ANAIEKIN**  
Plaza Handian

**23:00 MAUXITXAREKIN  
KALEJIRA**

**24:00 MOZORRO  
LEHIAKETA**  
Plaza Handian  
Antolatzailea: Gurutze  
Gorriko Astialdi Taldea

## igandea

**16:30  
TXOTXONGILOAK**  
Antezzlana:  
"Txanogonitxo"  
(Euskaraz)  
Taldea: Gorakada  
txotxongilo taldea  
Herriko Antzokian

**18:00 DANTZALDIA**  
Gelatxo orkestarekin  
Zahañen Biltokian

**19:30-22:15 ZINEA**  
"Sobrevivire"

## astelehena

**19:30 HITZALDIA**  
Gaia: Mitologia eta kondairak  
Hizlaria: Josu Tellabide  
Gaztetxean

**22:15 ZINEA**  
"Sobrevivire"

## 7

## asteartea

**16:30 MOZORROEN  
ELKARTZEA**  
Plaza Handian

**17:00 AZKONA TALDEA**  
Haurrentzako ikuskizuna  
Plaza Handian  
(Euria egingo balu  
Kiroldegian)

**18:00 DANTZALDIA**  
Gelatxo orkestarekin  
Zaharrean Biltokian

**18:00 SUZKO ZEZENA**  
Plaza Handian

**18:30 MAUXITXAREKIN  
KALEJIRA**

## 9

## osteguna

**21:30 ZINE KLUBA**  
"El coronel no tiene quien  
le esriba"

## 10

## ostirala

**22:30 ANTZERKIA**  
"Crímenes del corazón"  
"Vaiven producciones"  
Herriko Antzokian

**23:00 MUS  
TXAPELKETA**  
Gaztetxean

# ZINEA



**Zuzendaria:** Alfonso Albacete eta  
David Menkes.  
**Antzezleak:** Emma Suarez,  
Juan Diego Botto, Mirtha Ibarra.

## Sobrevivire

Pelikulak Margaren bizitzako une desberdinak azalduko dizkigu; nerabezaroa, unibertitateko urteak, lan mundua. Gauza onak eta txarrak ezagutuko ditu: batetik, adiskidetasuna, maitasuna, semea hazteak sorrarazten dion poza etab. Bestetik, berriz, langabezia, bakardadea eta depresioa sofrutuko ditu. Bizitzak irakasgai garrantzitsu bat irakatsiko dio, ordea, bizitza perfektua izan ez arren, hoffetaz jabetzea eta bizitzeko gogoia izatea dela benetan garrantzia daukana.



• **EH alderdiaren mitina hihar, hilak 4, Plaza Handian**

Abstentzioaren aldeko kanpainaren barruan, EH alderdiak mitina eskainiko du bihar, hilak 4, Plaza Handian. Mahai nazionaleko kide bat izango da hizlaria, eta mitina eguerdiko 13:00etan hasiko da. Aurrez, auto karabana bat ibiliko da herriko kaleetan. Mitina amaitu ondoren, berriz, bertsolari batek bertso batzuk abestuko ditu.

• **Baqueira Beretera eskiatzera Ifillorkaikorreldn, martxoaren 25ean**

‘Morkaiko Mendizale Elkarteak’ antolatuta Baqueira Beret estaziora eskiatzera joateko irteera egingo da martxoaren 25ean eta 26an. Eski alpinista, travesia edo fondoko eskia egiteko aukera izango da. Irteeraren prezioa 9.000 pta.koa da bazkideentzat eta 10.000 pta.koa bazkide ez direnentzat. Prezio honen barruan, lo egiteko lekua, pentsio erdia eta autobusa daude. Morkaikokoek adierazi digutenez, 50 plaza besterik ez daudenez, lehen bailehen izena ematea komeni da elkarteak Errosario kalean duen egoitzan. Ordainketa aurrez egitea ezinbestekoa izango da.

• **Emakumeen erreallitateari buruzko erakusketa ikusgai Kultur Etxean**

"Emakumeak han eta hemen mundu berri bat erdizten" izenburuko erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean. Emakumeen egoerari buruzko argazkiak erakusten dira bertan ‘Mugarik Gabe’ elkartearen bidez. Izan ere, Gobemuz Kanpoko Erakunde honek lagatakoak dira argazkiak. Erakusketa hau, gaur ostirala, martxoak 3, inauguratuko da eta datorren martxoaren 17ra arte egongo da zabalik. Datozen eguntarako ordutegia honako hau da: astegunetan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara eta jai egunetan, aldiz, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara. Emakumeen erreallitatea gehiago ezagutarazi nahi duen erakusketak hau ‘Haizea Emakume Taldea’k antolatutakoa da. Bertan, panel batzuen bitartez, emakumeak European eduki duen bilakaera agertzen da.

• **Antzerkia, mus txapelketa eta sagardo festa Gaztetxean**

Datozen bi astebukaerretarako hainbat ekintza antolatu ditu Gazte Asanbladak. Hasteko, bihar, hilak 4, telebistaren kontrako ekintzak burutuko dituzte herriko kaleetan arratsalde guztian. Ondoren, "Telebista show" izeneko antzezlanak izango da ikusgai Gaztetxean, arratsaldeko 20:00etan. Astelehenetan, hilaren 6an, berriz, Josu Tellebide etnologoak, ‘mitologiak, leiendak, sinesmenak eta ohiturak’ izeneko hitzaldia eskainiko du 19:30ean. Bestalde, martxoaren 10ean, mus txapelketa izango da. Izen-ematea gaueko 22:30etik aurrera egin ahal izango da eta bikote bakoitzak 500 pta. ordaindu beharko ditu. Azkenik, martxoaren 11rako Sagardo festa itzela antolatu dute. 500 pta. ordaintzearen trukean bi kontzertu entzuteko eta nahi adina sagardo edan eta lepo bete arte jateko aukera izango da 19:00etatik aurrera. "Garbanzo negro" galiziarrek eta "Hiper Kord" madrildarrek alaituko dute giroa.

• **'Arigera Txotxi sagardo festa, martxoaren 17an, Kultur Etxeko Sotoan**

Arigera, helduen euskalduntze-alfabetatzea suspertzeko proiektua hasi da jada jarduerak prestatzen, eta datorren hilaren 17rako, jardueretan parte hartuko dutenek elkar ezagutzeko asmoz, ‘arigera txotxi’ prestatu dute. Bertan; pintxoak, sagardoa, intxaurrak, gazta eta menbrilloak gain, erromeria eta jolasak izango dira. Euskara ikasle eta ingurukoentzat zuzenduta dagoen afaria gaueko 21:00etan hasiko da Kultur Etxeko Sotoan. Afaltzera joan nahi dutenek, martxoaren 10a baino lehen izena eman beharko dute euskaltegietan edota Elgoibarko Izarrako 943 74 16 26 telefonora deituz. Gaueko 22:30etatik aurrera edonor sartu ahal izango da, nahiz eta aurretik izenik eman ez. Prezioa 500 pezetakoa izango da.

**T X A N D A K**

**FARMAZIAK**

- |           |  |             |
|-----------|--|-------------|
|           | <b>Egunez</b>                            | <b>Gauz</b> |
| <b>4</b>  | Bidasolo                                 | Bidasolo    |
| <b>5</b>  | Bidasolo                                 | Bidasolo    |
| <b>6</b>  | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean) |             |
| <b>7</b>  | Fernandez Fernandez                      |             |
| <b>8</b>  | Yudego Yudego                            |             |
| <b>9</b>  | Zabaleta Zabaleta                        |             |
| <b>10</b> | Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean) |             |

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**J. IGNACIO FERNANDEZ** Herriko enpara.nla 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

5 igandea Fotero

ONGARRI zine kluba

11 • 11 • • • al      III • • • • •      11 •

**B Coronel no tiene quien le escribni**

Koronel zaharraren etxean pobrezia gorrian bizi dira, bere emaztea hezurra eta azala da eta erdi gaixorik dago, zer jan ez daukala-eta. Hala ere, Koronela ostralero, daukan trajerik onena jantzi, eta portura joaten da bere pentsioa iragartzen duen eskutitza jasoko duen itxaropenarekin. Herri guztiak daki, ordea, eskutitza ez dela inoiz iritsiko, baita bere emazteak ere, baina Koronelak erreallitateari bizkarra eman eta bere ametsarekin aurrera jarraitzen du.

Zuzendaria: Arturo Ripstein.  
 Antzezleak: Marisa Paredes, Fernando Lujan, Salma Hayek.

grimill. 1 t      IIR I

11 • • 11 IE • 111 11 • • I •      Ia • • • 111 • • 111 IE • • •

## Lana

### • ESKAINTZA •

- Pertsona arduratsua hehar da 2 haur zaintzeko. Sukaldean aritzen jakitea komeni da. tr 943 74 35 62 (9:00-13:00 / 17:00-20:00 Itziar)
- Pintoreak hehar dira. Esperientziadunak badira hobe. a 943 74 15 52160611 43 20
- Pertsona euskalduna behar da goizez 2 ume zaintzeko. xr 943 74 05 14/ 943 74 15 16/ 626 23 75 70

### • ESKAERA •

- Neska eskaintzen da goizetan lan egteko. wr 943 74 29 73
- Erizaintzan diplomaturako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko, etxean nahiz ospitalean. Egunez edo gauzez. a 943 74 27 78 (Itziar)

## Etxebizbak

- Etxea alokatzen dut Erretxindin. Altzariek. xr 943 74 33 06
- Apartamentua salgai Deban, Itsasbegi kalean. Garajea dauka. 47 943 19 23 48
- Pisua bartuko nuke alokairuan. tr 943 74 04 86
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Ahal bada altzariek. te 626 80 80 93
- Etxea alokatzen dut P. Muguruza Etorbidean. 3 logela. 943 74 27 79
- Etxea salgai Urasandin, 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, balkoia eta ganbara. tr 943 74 15 42
- Etxea salgai Mugurnza kaleko 26. zenbakian. Tr 943 85 08 92

## Salerosketak

- Autoa salgai W-Polo Coupe GT1, le 943 74 15 19 (eguerdian deitu)
- Ordenagailuarentzat mahaia salgai. Frabili gabe. a 943 74 32 98
- Ohea egiten den 90em zabaleko sofa salgai. Egoera onean. Berriberria. a• 943 74 21 68

## Bestelakoak

- Bidaiarako poltsa galdu dut Merkatu plazatik Plaza txikira bitartean. Barruan arropa dauka. 943 74 03 65
- Zilarrezko erlojua galdu nuen asteartean, anbulategi ondoan. Topatu duenak eraman dezala mesedez udaltzaingora.

## Garajeak

- Garajea alokatuko nuke Ikastola ondoan. tr 943 74 28 24
- Garajea salgai Pista Beltzean. -a- 943 74 00 39

## Agurrak

- Zorionak Patxiri, martxoaren 5ean urteak beteko dituelako. Kontuz Eiderrekin eta txakurrarekin. Gure partez.
- Zorionak Agustin Iruslari, bihar urteak beteko dituelako. Familiaren eta bereziki Eloni eta Nerearen partez.
- Zorionak Angel Arribalagari, hilaren leian urteak bete zituelako. Fatniliaren eta bereziki Keparen eta Beilaten partez.
- Zorionak Sandra Montest, martxoaren 6an 12 urte heteko dituelako. Zure lagun hatzuen partez. Hunabi tirakada belarritik. Ah, eta ez ahaztu nobixua bilatzen. Zorionak!
- Zorionak Alazne Eskuderi, tilsailaren 25ean urteak bete zituelako. Itsasoren, Leireren eta Txerribururen partez.
- Zorionak Ane Uraini, otsailaren 23an urteak bete zituelako. Leireren eta Txerribururen partez.
- Zorionak Gerardo Olerori, otsailaren 28an urteak bete zituelako. Emaztearen eta Itigio eta Gorka semeen partez.
- Zorionak Eider Rodriguez, otsailaren 24an 5 urte bete zituelako. Belarrietatik tirakada bat Ion Rodriguezen partez.
- Zorionak Sorgintxo, datorren astean urteak beteko dituzulako, Zure lagun misteriosuen partez.
- Zorionak Alazne! otsailaren 25ean 12 urte hete zenituelako. Aitzolen partez. Asko maite zaitut.
- Superzorionak Alazne Martinezi, gaur 7 urte bete dituelako. Zure gelakoak ez diren lagun batzuen partez. Ondo pasatu al duzu eguna?



• Hogeta hat, hogeta bi, ze haundixa ein zaran, e? Zorionak danon partez.



- Zorionak eta eskerrik asko gaztetako edertasun osoa zure jakinduria gure artean zabalitzen jakin duzulako. Urte askotarako amama.



• Zorionak gure etxeko txiki-xari domekan urte txiki hat beteko duelako. Elgoibarko eta Durangoko familiaren partez.



• Zorionak Natalia Solozabali, trtartoaren 6an 8 urte beteko dituelako. Familiaren partez.

• Zorionak Gotmon Gurrutxagari, martxoaren leian 27 urte bete zituelako. Raquelen partez..



• Zorionak Mireiari, igandean 9 urte beteko dituelako. Gurasoell partez.




• Zorionak Antoniori, alaba Ainhoaren, Aitorren eta zure emaztearen partez. Zorionak Aiala xo!




IAzkenean iritsi da zure 6. urtehetze eguna. Zorionak gure eixeko politxenari. Familiaren eta bereziki Iratiren partez.



• Superzorionak Alazne Martinezi, gaur, hilak 3, 7 urte bete dituelako. Familiaren eta hereziki Iruñeren partez. Egun ona pasa.



• Zorionak Aner Astigarragari, martxoaren 8an 3 urte beteko dituelako. Familiaren eta bereziki aitona-amonen partez. Zorionak baita ere here lagun Alaitzen partez.




• Zorionak Antxoni, ostegunean 9 urte hete zituelako. Familiaren partez.




• Zorionak Josune Niantecari. martxoaren 4an, 5 urte beteko dituelako. Familiaren eta hereziki Josebaren partez.




• Zorionak Aitorri, otsailaren 24an urteak bete zituelako. Gurasoen eta anaia Mikelen partez.



• Zorionak Ainhoari, otsailaren 26an urteak bete zituelako. Urteak nola pasatzen diren eh! baina neska polita izaten jarraitzen duzu. Muxu handi bat familiaren eta bereziki Goraneren partez.




• Zorionak Idoia Ajuriageerrari, martxoaren 2an 9 urte bete zituelako, Anaiaren eta gurasoen partez.



• Zorionak Iker Agirregomezkorti, martxoaren 5ean 2 urte beteko dituelako. Familiaren eta Aitziren partez.



• Zorionak Mikeli, otsailaren 26an 10 urte bete zituelako. Etxekoaren partez.



• Zorionak Andoniri, martxoaren 6an 4 urte heteko dituelako. Familiaren eta bereziki Mariaren partez.



• Zorionak Maiteiri, otsailaren 27an 7 urte bete zituelako. Aiudocaren, amamaren, tia Mariren eta tia Arantxaren partez.



• Zorionak Jonatan Martini, martxoaren 5ean 14 urte beteko dituelako. Auparen partez. Aupa "El Informal"!



# HODETU ZURE ETXEA, BARRUTIK... ETA KANPOTIK!



**OTIS**

**itsUSI**



**DEDWESA**

GURE ERAIKINEN  
ERREHASILITZAIORAKO  
KANPAINA

**Natir.Gas**

**Iskaltel**



**Informa zaitez!**

Tfnoa. 943 82 0178



CheEt,ci Behea  
[www.debegesa.com](http://www.debegesa.com)

Debeoesak konponketarako zerbitzua eekaintzen dizu. Zerbitzu horrek egin behar cluzun lanari buruzko asesoramendua eta informazioa emango dizu. Zenbaki honetara deituz, Elbarren ditugun bulegoetara edo Peba Beheko Ucialetan jaso dezakezu informazioa.

Egin beharreko korponketeri buruzko informazioa emateaz gain, eta Euako Jaurlaritza, Udalek eta Enbresek ematen dituzten diru-laguntzak jasotzen lagunduko dizugu eta ario teknikoan eta administrathwan Eagunduko dizugu.





Zeuk erabaki. **e**